

# EUSKARAZ EGITEKO BALDINTZAK

Deskribapena: “Mahai-futbola” idatzita azaltzen da pantailan, eta, gazte batzuk kartoizko mahai-futbol batean jolasten azaltzen dira, barrez.

Kike (OFF ahotsa): Mahai-futbola asmakizun itzela da! Lagun artean ondo pasatzeko tresna baliagarria.

Deskribapena: “Billarra” hitza azaltzen da pantailan, eta billarreko bolak agertzen dira bata bestearen kontra talka eginez.

Kike (OFF ahotsa): Billarra, denbora-pasa ez ezik, kontzentrazio, trebetasun eta adimen handia eskatzen duen kirola da. Eta ez da gutxiagorako, billarrean txapeldun handia izateko trigonometria ikasketak ezinbestekoak dira eta.

Deskribapena: Gizon bat azaltzen da kamera geldoan mahai-teniseko sakea egiten eta pala bat atxikita duen makina baten aurka jokatzen. Hori gertatzen den bitartean, “Ping-pong” hitza azaltzen zaigu pantailan. Ondoren, gizona bi palekin azaltzen da, bata eskubiko eskuan eta, bestea ezkerrekoan, bost makinaren aurka jokatzen.

KIKE (OFF ahotsa): Billarreko jokalariek ez bezala, ping-pongekoek Olinpiadetan parte hartzeko aukera dute. Motibazio polita geure burua gainditu eta gero eta hobeak izateko! Motibazioek helburu jakin bat lortzeko bidean jartzen gaituzte. Helburu horietako bat izan liteke ping-pong jokalaria on bat izatea...

Deskribapena: “Helburua” hitza azaltzen da pantailan eta klub batean mutiko bat eta, neska bat mahai tenisean jokatzen azaltzen dira.

Kike mahai-teniseko mahai baten aurrean agertzen da (Kike1), pala bat eskuan duela. Aurrean duen aurkaria bera da (Kike2).

Kike 1: “...edo ahal dugun guztietan euskaraz egitea.”

Kike2: “Horretarako baldintza batzuk bete behar dira: norberak euskaraz jakitea.”

Deskribapena: “Norberak euskaraz jakitea” esaldia azaltzen da pantailan. Kike 2k mahai teniseko sakea egiten du eta Kike 1ek pilota hartzen du.

Kike 1: “Parean dagoenak ere euskaraz jakitea.”

Deskribapena: “Parekoak euskaraz jakitea” esaldia azaltzen da pantailan eta Kike 1ek sakea egiten du. Oraingo honetan, Kike2k hartzen du pilota.

Kike 2: “Hitz egiten duenak besteak ere badakiela jakitea.”

Deskribapena: “Besteak badakiela jakitea” esaldia azaltzen da pantailan eta Kike2k sakea egiten du. Kike 1ek pilota hartzen du.

Kike 1: “Eta guztietan garrantzitsuena: euskaraz egin nahi izatea.”

Deskribapena: “Euskaraz egin nahi izatea” esaldia azaltzen da pantailan. Kike 1ek sakea egiten du eta Kike 2k berreskuratzen du pilota.

Kike 2: “Asko gara euskaraz egiten dakigunok, baina ez dugu beti eta denekin euskaraz egiten.”

Deskribapena: Kike 2k sarea egin eta Kike 1ek pilota jasotzen du.